

# **MEMORIAREN ARTEA**

## **ETA ARTEAREN MEMORIA HEZKUNTZAN.**

### **Mugaz gaindiko proposamen didaktiko bat sortzeko bidean**

**Elizalde-Estenaga, Amaia eta Gandara-Sorarrain, Ana**

**(Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU)**

Lan honen bidez Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) Ikerketa Taldearen (IT 1047-16) azkenaldiko hezkuntzari lotutako jardunaren eta etorkizunera begirako proiektuen berri ematea da. Gure jarduera-ildo nagusia da euskarazko hezkuntzan (Lehen Hezkuntzaren eta Bigarren Hezkuntzaren esparruetan, bereziki) euskal lurraldeetako memoria gatazkatsuak lantzeko literatura eta beste arteak oinarritzat hartzea eta, hala, ekarpen didaktiko berritzaileak egitea. Ildo horrek bat egiten du bete-betean Agenda 2030en baitako Garapen Iraunkorrerako “Kalitatezko hezkuntza” eta “Bakea eta justizia” helburuekin, baina ez dirudi erraza gertatzen ari denik gertaera gatazkatsuen memoria eskolara ekartzea, bereziki iragan hurbilari dagokionez, baina ez soilik. Egoeraren azterketa orokor bat egin ostean, ikerketan eta material sorkuntza berritzailean sakontzea beharrezkoa zela ondorioztatu dugu eta, horretarako, EHU-Gizarte-Enpresa 2021 programaren laguntzaz garatzen ari garen “Memoriaren Artea eta Artearen Memoria Hezkuntza” proiektuaren bidez.

Jarraian azalduko diren datuak eta ondorioak garatze bidean den proiektu honen orain arteko ibilbidean jasoak dira eta gaiaren egoerari nahiz didaktikaren arloko gure ekimen sortzailearen oinarri teoriko, metodologia eta emaitzen nondik-norakoei lotuak izango dira. Azken horien baitan kokatzen dira gure proiektuaren ardatz nagusiak: memoria ikasketak, enpatia historikoa eta ikerketa-ekintza parte-hartzailearen metodoa.

**Gako-hitzak:** Memoria historikoa, enpatia historikoa, material sorkuntza, literaturaren didaktika.

## 1. Sarrera

Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan ikerketa taldearen azter-eremu nagusia da iraganeko gertaeren oroimenaren literatur errepresentazioena. Zehazkiago, XX. mendean zehar euskal gizartean eragina izan duten gatazken errepresentazio literarioak izan ditugu aztergai. Era berean, literaturaz harago ere, musikaren nahiz arte plastikoen adierazpideei ere erreparatu diegu. Horrekin batera, azken urteotan gure jakintza eremua hezkuntzan aplikatzeko bideari ekin diogu eta hortik sortu zen, hain zuzen ere, 2017-2018 bitartean garatutako “Elkarbizitza eta Oroimenerako Literatura Bigarren Hezkuntzako ikasgeletan” proiektua. Ekimen horren helburua material didaktiko bat sortzea izan zen, euskal testuinguruan gertatutako XX. mendeko gatazkek lantzeko (Lehen Mundu Gerla, 36ko Gerla, Bigarren Mundu Gerla, Trantsizio garaiko eta osteko Espainiar Estatuaren nahiz E.T.A.-ren indarkeria). 2019an amaitu genituen Izaro Arroitzak koordinatutako “Gerlari” eta Ana Gandarak koordinatutako “Biktima/Biktimario” unitate didaktikoak, baina guk geuk lanotan hainbat hutsune antzematen genituen: gaiak jorrazteko ekimen hezitzaile gehienak bezala, batxilergo mailara zuzenduta zeuden, Hego Euskal Herriko (eta, bereziki, EAEko) ikuspegia gailentzen zen eta, azkenik, literatura baliabide gisa agertzen zen arren, proposatutako jarduerak klasikoak zirela sumatzen genuen. Hala, zerbait ezberdina egiteko gogoia pizteko eta norabide horretan lehen urratsak emateko abagunea eman zigun lehen proiektu horrek, metodo original bat baliagarria izango zena euskal testuinguruaren osoaren iragan gatazkatuak Lehen Hezkuntzan eta baliabide artistikoak erdigunean jarrita landu ahal izateko.

Abiatu dugun bide berritzailearen oinarri teorikoa hiru ardatzen bueltan eraikia da: memoria ikasketak, enpatia historikoa eta ikerketa-ekintza parte-hartzailearen metodoa. Eskolaz eta memoriaz ari garelarik, memoria kulturalaren (J. Assman 2008; A. Erll 2011) transmisio instituzionalaz ari gara, jendarte konkretu baten memoria kolektiboaren (Halbwachs 1968 [1950]) transmisioan berebiziko garrantzia eta, neurri batean, erantzukizuna baitu eskolak, instituzio gisa. Arte adierazpenek, bestalde, iraganeko gertaeren lekukotza eta gerorako hausnarketa bereziak eskaintzen dituzte, emozio eta afektuetatik gertu kokatzen direnak (Resina 2011), eta, horregatik, ezin egokiagoak direnak etapa goiztiarretan iraganarekiko begirada enpatiko eta, beraz,

bakezale bat sustatzeko. Eskolaren garrantzia handia izanik ere, edo hain zuzen ere arrazoi horregatik beragatik, zaila gertatzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoan euskal eremuan eragina izan duten XX. mendeko gatazken oroimena curriculumean txertatzea, edo horiei material didaktiko forma ematea. Horen adibide gisa, ikusi besterik ez daude *Herenegun!* proiektuak jaso zituen alegazioak eta sortu zuen eztabaida<sup>1</sup>. Gure ustez, arte adierazpideen erabileran oinarritutako proposamen didaktikoak eraginkorrak izan daitezke hezkuntza testuinguruan gaiok askatasunez, distantziamenduz eta era kreatiboan jorratzeko.

## 2. Gaiaren egoeraren azterketa

EAEko hezkuntza eremuko ezintasunari erantzun nahiean abiatu ginen eta lehen urratsa egoeraren azterketa egitea izan zen, EAE mailako ekimenak aztertuz. Horrekin batera, EAEz kanpoko euskal lurraldeetako gaiaren egoera ezezagun zitzaigunez, ikuspegia eta lan-eremua zabaltzeko behar argia antzeman genuen. Batetik, inguruko esperientziak inspirazio iturri izan zitezkeelako eta, bestetik, euskarazko hezkuntza martxan den eremu osorako baliagarri izango den materiala sortu nahi genukeelako, berriz ere EAEzentrismoan erori gabe. Hala, gure egitekoari bete-betean heldu baino lehen, gaiaren egoera eta testuingurua aztertzeko beharra ikusi genuen eta, horretarako, bide ezberdinak hartu genituen: EAE mailan sortutako materialen bilaketa eta gaiarekin lotutako agente ezberdinen arteko (artistak, historialariak, irakasleak eta didaktikariak) elkarrizketak sustatzea, NFEko eta EHEko hizlariak ere bilduz.

EAE mailan sortutako ekimen eta materialei dagokienez, bi esparru eta proiektu jorratu genituen batez ere: Eusko Jaurlaritzaren ekimenez sortutakoak (*Adi-Adian* programa eta *Herenegun!*) eta Gasteizko Koldo Mitxelena eskola publikoa sorburu duen *Oroimenaren Harra*<sup>2</sup> proiektua. Lehen kasuan *up-bottom* ekimenez ariko ginateke, botere-guneetan kokatzen diren instituzioetatik jendartera bide egiten duten jardunez eta, bestean, *bottom-up* ekimenez, kontrako norabidea egiten dutenez, alegia. Analisi horretatik zenbait ondorio orokor atera ditugu:

---

<sup>1</sup> Eztabaidaren nondik-norakoak ezagutzeko, ikus: [https://bideoak2.euskadi.eus/2019/01/25/news\\_51560/Propuesta\\_para\\_el\\_di\\_logo\\_Herenegun\\_Enero\\_2019\\_eus.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2019/01/25/news_51560/Propuesta_para_el_di_logo_Herenegun_Enero_2019_eus.pdf)

<sup>2</sup> Proiektuaren nondik-norakoak eta proposamenak ezagutzeko, ikus: <https://oroimenarenharra.koldomixelena.net/>

## 2.1. Hartzaileak

Orain arte sortu diren material gehienak Batxilergoko ikasleriari daude zuzenduta. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklora zuzendutakoak ere ugariak dira, baina gutxiago lehen ziklorako eta areago Derrigorrezko Lehen Hezkuntzarako diseinatutakoak. Bestalde, material guztiek daukate curriculumarekin eta metodologiari buruzko azalpenekin lotutako atal bat eta, urriagoak badira ere, badaude irakaslearentzako gida dakarten material zenbait. Dena den, oro har, ez da irakasleriarentzat prestakuntza materialik topatu.

## 2.2. Metodoa eta materialak

Orokorrean material didaktikoak PDF dokumentu gisa daude eskuragarri eta, beraz, euskarria paperekoa da. Euskarriaren izaera klasikoa izanik ere, kasu askotan erabilitako materialek historiaren lanketa ohikoarekin hausten dute, memoria komunikatibora (ahozko historia) eta kulturalaren beste esparru batetara (artistikora) joaz: lekukoen testigantzak eta ekoizpen artistikoak erabiltzen dira. Alabaina, kasu askotan arteak ez du zentralitate handirik eta, oro har, gai batean murgiltzeko tresna gisa erabiltzen da film, margolan edo literatur testu jakin bat. *Oroimenaren Harra* webgunean baliabide ezberdinak aurki daitezke eta horien artean eskulturak, literatur lanak, besteak beste, baina ez da baliabide horiek erabiltzeko proposamenik luzatzen.

Erabilitako metodoek berritasunak dakartzate zenbaitetan, adibidez, *Adi-Adianen* kasuan testigantzen lanketarako prozedura jakin bat planteatzen da, iraganari begiratzeko historia saio arruntetan egin ohi ez dena, eta biktimaren gaia jorrazteko abiapuntu gisa film bat ikustea proposatzen da, ondoren hartan oinarrituz eztabaida gidatua sustatzeko. Era berean, *Oroimenaren Harra* ekimenak sortutako unitate didaktikoan 36ko Gerlaren memoria lantzeko sistematikoki abestiak eta literatur testuak hartzen ditu abiapuntu gisa jarduera ezberdinak planteatzeko garaian. Jarduera literario eta artistikoa metodoan txertatuta ez badago ere –sormenari dagokionez, bereziki– honek ere berrikuntza nabarmena suposatzen du metodo klasikoekin alderatuz gero.

Aipatutako materialek gatazkei lotutako memoria lantzen duten arren, ez dute gatazken kudeaketarako eta ebazpenerako metodologiarik lantzen, kolektiboen arteko gatazkatik norbanakoen arteko gatazketara salto eginez. Era berean, ez da sistematikoki

euskal gatazken eta munduko bestelako gatazken arteko loturetan oinarritutako metodologiarik planteatzen, ez historia konparatuaren ikuspegitik, ez eta enpatia historikorenetik ere.

### 2.3. Edukiak

Kuantitatiboki, material gehienek 36ko Gerla jorratzen dute, baina azpimarratzekoa da *Adi-Adian* dela zabalkunde gehien izan duen materiala, eta honetan postfrankismoan jazotako euskal gatazken testigantzak dira lantzen direnak, gehienbat ETA erakunde armatuaren biktima protagonistenak. Horrekin batera, frankismoko eta postfrankismoko memoria lantzen duten zenbait material ere badira sarean eskegita, baita metalaren sektorearekin, industrializazioarekin eta langileriarekin lotutako batzuk ere —nahiz eta horietako zenbait ez diren *Oroimenaren Harran* biltzen—. Aipatzeko modukoa da Gogora Institutuarekin lotutako ekimenek memoria hurbilaren lanketa dutela helburu (GAL, ETAREN indarkeria eta abar). *Oroimenaren Harra* webguneak sortu eta bildu dituen materialek, aldiz, garai ezberdinetako gatazkek jorratzen dituzte: 36ko Gerla, Frankismoa, langileen borroka eta horren kontrako indarkeria poliziala, LGTBIQ+ kolektiboaren kontrako indarkeria eta abar.

Aipatu berri diren eduki horiek artea adierazpide izan duten euskal gatazken eremu oso murrizta biltzen dute, arrazoi ezberdinengatik: salbuespenak salbuespen, generoarekin lotutako eta Ipar Euskal Herrian jazotako gatazken memorien gabeziak nabarmentzen dira, besteak beste. Gutxi dira ere enpatia historikoaren ikuspegitik euskal gatazkek munduko bestelako gatazkekin lotzen dituzten materialak eta ez dago gatazken kudeaketari eta ebazpenari buruzko edukirik. Azkenik, garaian-garaiko fenomeno zentsorea nahiz arteak honen aurrean jokaturako papera ez daude integratuta edukietan.

Bilaketa eta analisisia gauzatu ostean, euskal eremuko lurralde ezberdinetako agenteak bildu genituen 2021eko urtarril-otsailean “Memoria eta gatazka euskarazko hezkuntzan: literatura eta beste arteak (balia)bide” workshop sorta transdiziplinar-transinstituzionalean. Diziplina ezberdinetako artistak, memoriarekin lotutako erakunde ezberdinetako ordezkariak, metodologia berritzaileez mintzatu zitzaizkigun adituak eta irakasleak elkartu genituen foro haietan. Ideia eta iritzi-elkartruke transdiziplinar interesgarri eta biziki emankorra sortu zen arteak euskal gatazkek jorratzerako garaian eman lezakeenaz, eskolan gaiok lantzeko arrazoiez nahiz oztopoez, aukera berritzaile

ezberdinez eta instituzio publikoen nahiz memoria elkarten paperaz, besteak beste. Era berean, parte-hartzaile guztiei gaiaren inguruko galdera zehatz zenbait ere luzatu genizkien galdetegi baten bidez, eta bertatik ere emaitza interesgarriak jaso genituen.

Irekiera saioan Jose Miguel Gastonek (Nafarroako Memoriaren Institutuko zuzendaria), Gemma Lluch-ek (literaturaren didaktikaen arloko Valentziako Unibertsitateko katedraduna) eta Iban Zalduak (euskal idazleak) parte hartu zuten eta, hortik aurrera, lau mahaitan antolatutako elkarrizketak izan genituen.

- 1) Arte praktikak: Sorkuntza alor desberdinetako artistak (Xabier Erkizia, Ainara Gurrutxaga, Alex Carrascosa).
- 2) Lantzeko edukiak: Memoriaren lanketarako edukiak proposatu zituzten ikerlariak (Eneko Bidegain, Maggie Bullen, Josu Chueca eta Xabier Irujo).
- 3) Orain arteko esperientziak: Memoria ikasgeletan lantzeko aurrera eramandako esperientzietako parte-hartzaileak (Aiako Harria, Oskia, Lander).
- 4) Tresna didaktikoak: Memoria eta gatazka lantzeko baliabide eta ikuspegi didaktiko-pedagogiko berritzaileak proposatu zituzten adituak.

Workshop sorta aberasgarri horretatik sortutako ondorio nagusiak honakoak izan ziren. Batetik, mintegietatik ateratako ondorio nagusietarik bat izan zen mintegiek berek ezarritako abiapuntua bereziki eraginkorra eta beharrezkoa izan dela. Izan ere,

- Agerikoa da diziplinartekotasunaren egokitasuna euskal gatazkak jorratzeko, indar eta erabilgarritasun handiko abiapuntua da, arte praktikarekin batera.
- Hagitz agerikoa izan da harreman-lan-komunikazio sareak sortu behar direla, eta abian diren egitasmoak elkarrekin konpartitu nahi direla. Baliabideak behar dira horretarako. Horretan erakunde publiko eta elkarteek berebiziko garrantzia dute gaiaren lanketa errespetuzkoa izan dadin.
- Lokala kontuan hartu baino, lokaletik abiatu eta horretan ardazu beharraren ezinbertzekotasuna errebindikatu nahi genuke. Halaxe adierazi zuten solaslariek, entzuleek eta euskal gatazkak eta memoria egitasmo propio gisa lantzen diharduten erakunde, elkarte eta irakasle banakoek ere. Bat heldu gara gu ere beraiekin.

Bestetik, gure azken helburuari begirako ondorioak honako ideietan labur genitzake:

- Aditu/arituek nabarmendu duten ideia nagusia da memoria historikoa eta honi lotutako gatazkak lantzeko beharra.
- Hezkuntza komunitateak ez du materialik eskura honen lanketarako, horregatik ikastetxeek eurek sortu behar dute materiala.
- Hutsunea bereziki nabarmena da Lehen Hezkuntzan. Indar berezia egiteko beharra adin tarte honetako ikasleentzako proposamenak sortzeko.
- Irakaslearen esku dago maiz gatazka hauen lanketa. Era berean, materialaz gain, formakuntzaren eta elkar ezagutzaren beharra.

Azkenik, workshopetako parte-hartzaileen iritzia jaso nahi izan genuen sortutako elkarrekintzaren metodoa baloratzeko eta parte-hartzaileek gure proiektuarekin lotutako zenbait punturi buruz zuten iritzia jasotzeko. Beren iritziz, sortutako elkarrekintzaren indarguneak izan ziren diziplinartekotasuna, ikuspegi desberdinen ekarpenak, jada badiren proposamenak ezagutzeko aukera eskaintzea, saretzeko lehen urratsa, elkarlanerako aukerak ikusaraztea, uniberstitatearen eta gainerako hezkuntza komunitatearen arteko komunikazioa (espresuki azpimarratu zutelarik elkarrekintza hori sustatzeko beharra), artea baliagarri agertzea bazterreko gatazkak agerrarazteko eta Euskal Herria bere osotasunean begiratu izana (eremu desberdinetako berezitasunak ulertu eta islaturikrik).

Parte-hartzaile horien beren erantzunetik bildu genituen hainbat ideia esanguratsu. Hala nola, “Iruditzen zaizu komenigarria dela euskarazko hezkuntzan gatazken memoria artea baliatuz landuko duen egitasmoak martxan jartzea?” galderari % 90ak erantzun zion baietz; “Iruditzen zaizu komenigarria dela hiru eremu administratiboengan pentsatutako memoriari buruzko euskarazko materiala sortzea?” galderari ere, adostasun zabalarekin, % 80ak, baietz erantzun zion, Ipar/Hego Euskal Herri muga gainditzeko beharra aipatu zelarik, maizen; azkenik, “Egin nahiko zenuke esku artean dugun material-didaktikoaren sorkuntza prozesuaren jarraipena? Aktiboki parte hartu nahiko zenuke prozesuaren beste faseetan ere?” galderari emaniko erantzunek workshopen baliagarritasuna eta etorkizunerako proiektzioa agerrazten dute, % 90ak baietz erantzun baitzuen.

### **3. “Memoriaren Artea eta Artearen Memoria eskolan” proiektua**

Materialen azterketatik eta workshopetan sortutako elkarrizketaren ostean, material berritzailearen sorkuntzari heltzeko unea heldu zen, izan ere, workshopen ekarpenak eta inkesten emaitzak aztertu ostean, argi ikusi genuen gure pertzepzio eta intuizioek bat egiten zutela arlo ezberdinetatik heldu ziren aditu eta arituekin. Bereziki, ikusi genuen gaia hezkuntza formalaren eremuan lantzea beharrezkoa eta zentzuzkoa delako iritzia orokorra zela eta, bestetik, zentzua duela euskal eremuko gatazken memoria lantzeko artea (literatura, dramatizazioa, arte plastikoak eta abar) abiapuntutzat, baliabidetzat eta, bereziki, bidetzat edo jardunbidetzat hartzeak. Horrekin batera, argi ikusi genuen etorkizuneko bidea sektore ezberdinekin eta, batez ere, artisten eskutik egiten jarraitu nahi genuela eta, sortuko genuena sortuko zela ere, elkarlanean egin nahi genuela. Asmo horrekin aurkeztu genuen, Erein argitaletxearekin bat eginik, “Memoriaren Artea eta Artearen Memoria eskolan” proiektua EHUK deitutako Unibertsitate-Gizarte-Enpresa 2021 deialdira.

Proiektua onartua izan zen eta ordutik hona bi lerro jorratu nahi izan ditugu: LH eta DBH mailetakoa Historia eta Euskara eta Literatura alorretako ikas-liburuak aztertzea, batetik, eta proposamen didaktikoaren sorkuntzan eman beharreko urratsak abiatzea bestetik, arte dramatikoetan eta arte plastikoetan aditu diren eta hezkuntzan ari diren artistekin eta Erein argitaletxearekin batera. Hala, egoeraren azterketan sakontzen jarraitzeko aukera izan dugu, argitaletxeek sortzen duten materialetan XX. mendeko euskal eremuan eragin duten gatazkak lantzen ote diren eta artea baliabide gisa erabiltzen den ikusteko. Era berean, material berriaren sorkuntza prozesua diseinatu eta abiatu dugu.

#### **3.1. Eskola-liburuen azterketa**

Eskola-liburuen azterketarako 237 argitalpeneko (testu-liburu, lan koaderno, jarduera-fitxa...) corpusa osatu dugu, 7 argitaletxe ezberdinetako eta 2008-2021 artean argitaratutako lanak ikertu ditugu. Material horietatik 146 Lehen Hezkuntzako etapara zuzenduak dira eta beste 91 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara. Irakasgaiei dagokienez, 132 lan Euskara arlokoak izan dira, 73 Historia-Gizarte arlokoak, 18




interdiziplinarrak eta 14 Plastika arlokoak. Testuliburu horiek aztertzean gure helburua izan da ikustea zein gatazka lantzen diren, batez ere, eta nola/nolako jarduerak proposatzen diren eta zer-nolako presentzia duten arte adierazpideek.

Azterketa egiterakoan, “Gatazka” terminoa modu zabalean hartu dugu, baina XX. mendera mugatu gara, eta batez ere, Euskal Herrian eragin nabarmena izan zuten gertakarietara. Item hauek zehaztu ditugu, beraz, testu-liburuetan agertzen diren gatazkak aztertzeko: I Mundu Gerra, I Mundu Gerraren eragina Euskal Herrian, Espainiako Gerra Zibila, Espainiako Gerra Zibilaren eragina Euskal Herrian, II. Mundu Gerra, II Mundu Gerraren eragina Euskal Herrian, Francoren diktadura, Francoren diktaduraren eragina Euskal Herrian, ETAREN indarkeria, Espainiako eta Frantziako Estatu indarkeria, Genero gatazkak, Langile gatazkak, Kulturarteko gatazkak eta Beste herrialde batzuetako gatazka garaikideak.

Testuliburuaren azterketa guztiz amaitu gabe daukagu oraindik, baina lehendabiziko ondorio batzuk aurkeztuko ditugu, kontuan izan behar den arren datuen interpretazioa garatu, zehaztu eta findu egin behar dugula oraindik. Lehendabiziko grafikan (Grafika 1) honetan ikus dezakegu, proportzioan, zenbatetan agertzen diren edo lantzen diren aipatutako item/gatazka horiek. Ikus dezakezueenez, nabarmen, genero gatazkak gailentzen dira, beste guztien gainetik. Ondoren egongo lirateke “Beste herrialde batzuetako gatazka garaikideak” orokorrean, eta “Espainiako Gerra Zibilaren eragina Euskal Herrian”.


Grafika 1: Gatazken lanketa



Nolanahi dela ere, datu esanguratsua da gatazkarik aipatuenaren kasua hartuta ere, gai hauek hartzen duten presentzia corpusaren %25era igotzen dela gehienez. Hau da, genero gatazkaren gaiak gain, gainerakoen presentzia corpusaren laurdenetik beherakoa da.

Datu orokor horiek zehatzago irakurtzeko, interesgarria da gatazken lanketa bereiztea etapaka, batetik, eta irakasgaika, bestetik. Hurrengo grafikan (Grafika 2) ikus dezakegu zenbatetan lantzen diren, proportzioan, gatazka horiek LHn eta DBHn.


Grafika 2: Gatazken lanketa, etapaka



Ondorio argiena da gatazkak askoz ere gehiago lantzen direla DBHn LHn baino. Bestalde, Zenbait gai ez dira agertzen LHko testuliburuetan: esate baterako, “euska gatazka” deitzen dugun horrekin zerikusia duten itemak; “ETAren indarkeria” eta “Espainiako eta Frantziako Estatu Indarkeria”.

Gaien lanketa irakasgaika bereizita aztertuz gero (Grafika 3), agerikoa da “Genero gatazkak” eta “Kulturarteko gatazkak” kenduta, beste kasu guztietan, Historia/Gizarteko testuliburuak nagusitzen direla, nabarmen. Hau da, Historia/Gizarteko ikas-materialetan lantzen dira, batez ere, aipatutako gatazka horiek.

Grafika 3: Gatazken lanketa, irakasgaika



Euskarako testuliburuei begiratzen badiegu, ikus dezakegu “Espainiako Gerra Zibilak” edota “Francoren diktaturak” presentzia txikia dutela; baina, aldiz, nabarmen handiagoa dela “Espainiako Gerra Zibilaren eragina Euskal Herrian” eta “Francoren diktaturaren eragina Euskal Herrian” itemen presentzia. Esan bezala azterketan sakondu behar dugun arren, hipotesi gisa pentsa genezake hori horrela dela gatazka horiek, bizipen horiek, memoria komunikatibo (Assmann, 1995) bizi horrek euskal literaturan duten agerpenagatik. Ildo beretik, ikusten da “euskal gatazkarekin” lotura duten itemak paretsu agertzen direla Euskarako eta Historiako testuliburuetan (presentzia hori, orokorrean, askoz txikiagoa den arren, gerrarekin edota Frankismoarekin alderatuta).

Iragan gatazkatsuen memoria lantzeko jardueretan arteak duen presentziaren harira, gatazkei buruzko obrak agertzen diren arren (literarioak, margolanak...), gehienetan testuingururik gabe izaten da, irakaslearen esku geratzen da lanketan sakontzea. Artea ez da inoiz erdigunean jartzen edo jardunbide gisa planteatzen.

### 3.2. Material berriaren sorkuntza

Gure metodologiari jarraiki, proposamen didaktikoa sortzeko mintegiak abiatu genituen artistekin batera, baina lehendabizi abiapuntu material bat behar genuen, artistikoa, sorkuntza prozesuari bide emango ziona: haur eta gazte literaturako corpus bat. Corpusaren hautaketa egiteko, hainbat irizpide finkatu genituen hasieratik. Berariaz HGL gisa katalogatutako testu literarioak izateaz gain, sortzez euskaraz argitaratutako testuak izango zirela erabaki genuen. Euskal Herriko eskoletan dagoen aniztasuna kontuan hartuta eta ikasle etorkin asko gatazka guneetatik etor daitezkeela jakinda, Euskal Herriko gatazkak lantzen dituzten testuak bai, baina beste testuinguru batzuetara estrapola daitezkeen lanketak ahalbidetzen dituzten obrak izatea hobetsi genuen. Hautaketa horretan, halaber, bereziki aztertu genuen ea jarraian datozen ezaugarriak betetzen ziren:

- Tabuaren esparrua hausten duten kontakizunak izatea, hau da, agerian jartzea, besteak beste, gorrotoak edo gerra batek sor ditzakeen ondorio kaltegarriak (heriotza kasu).
- Aniztasunetik abiatuta eta errelato bakarra saihestuz, ezberdinen arteko elkar-ulertzea eta errespetua bultzatzen duten kontakizunak izatea.
- Aurrekoari estuki lotuta, enpatia eta ulermena sustatuz, ezberdinen arteko elkarriketak biltzen dituzten kontakizunak izatea.
- Kolektibo gutxituen bizipenak jasotzen dituzten testuak izatea (dela emakumeen esperientziak, presoan egoera, erbesteratuena...). Kontaketa ofizialetik haragoko esperientziak eta ahotsak biltzen dituzten literatur lanak izatea.
- Ezinbestekoa iruditzen zaigu obretan gatazkaren biktimen hierarkizaziorik ez egitea. Horrez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu gatazka baten inplikaturadaren bi aldeetako biktimak ikusaraztea.
- Biktimizez gain, indarkeriaren erabileraz baliatzen diren agente diferenteak (alde batekoak zein bestekoak) ikusarazten dituzten kontakizunak izatea.

Aipatutako irizpide eta ezaugarriak kontuan hartuta, corpusaren bigarren hautaketa bat egin genuen, lan posibleen zerrenda murriztuz. Bigarren kriba horretan, diziplinartekotasuna baliatuz, lanketa aniztasuna errazten duten obrak hobetsi genituen, hau da, dramatizatu daitezkeen testuak izatea, arte plastikoen bidez landu daitezkeen literatur lanak izatea eta abar. Gainera, narratiboki egitura konplexua duten obra luzeak

alde batera utzi genituen, gure helburua adin tarte zabaleko irakurle gazteentzako produktu bat sortzea baita. Horiek horrela, guztira bost literatur obrarekin geratu ginen (*Udaberririk ankerrena* (2011, Unai Iturriaga eta Alex San Vicente), *Gerrak ez du izenik* (2013, Leire Bilbao), *Hiru sopranoak* (2015, Xabier Mendiguren), *Beroki gorria* (2016, Patxi Zubizarreta) eta *Nemo kapitainaren azken bidaia* (2017, Castillo Suarez) eta artistekin bilera antolatu genuen. Bertan liburuen izaera eta hautatu izanaren arrazoiak azaldu genizkien eta, hortik aurrera, artistek guk proposatutako literatur testuak aztertzeari ekin zioten, bakoitzak bere diziplinatik abiatuta jarduera proposamenak irudikatzeko.

Hilabete batzuren ostean, aurtengo uztailean elkartu ginen taldekideok artistekin ideiak bateratzeko eta zenbait erabaki hatu genituen, proposamenaren diseinuari ekin aurretik: materiala LHko 2. eta 3. mailetara zuzendua izango da eta hiru literatur testutatik abiatuko da: *Gerrak ez du izenik* (2013, Leire Bilbao), *Beroki gorria* (2016, Patxi Zubizarreta) eta *Nemo kapitainaren azken bidaia* (2017, Castillo Suarez). Era berean, oraindik guztiz finkatu gabe dagoen curriculum berriaren planteamenduari egokituko zaio.

Hemendik aurrera, sorkuntza prozesuarekin jarraitu eta proposamen didaktikoa pilotatzea izango da gure egitekoa, aurrerago proposamen hori finkatu eta zabaltzeko.